

ZOKKETAREN OINARRIAK

AURREZKLIK &... KONTU BERRIAK (2020-01-01ETIK 2020-03-31RA)

1.- Erakunde antolatzailea, zozketaren eremua eta saria

Caja Laboral Popular S. Coop. kooperatiba-sozietateak —aurrerantzean, LABORAL Kutxa—, egoitza soziala Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarrjeta pasealekua, z.k.g., 20500— duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du; hain zuzen, 150 €-ko 3 sari zozkatuko ditu, 2020ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean irekitzen diren AURREZKLIK &... kontu berrien artean.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

2020ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean LABORAL Kutxan AURREZKLIK &... kontua irekitzen duten 18 urtetik gorako bezero pertsona fisikoek hartuko dute parte zozketan. Kontua irekitzen den datan egiaztatu beharko da gutxieneko adina.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

4.- Zozketaren datak

150 €-ko 3 sari zozketa ausazko sistema informatiko bidez egingo da, ezarritako epean zozketaren baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen artean:

- 2020ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean (biak barne) irekitzen diren AURREZKLIK &... kontuek 150 €-ko 3 sari zozketan hartuko dute parte; 2020ko apirilaren 15ean izango da.

5.- Irabazleak

NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango, eta irabazleek egunean eta positiboan izan beharko dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

Gainera, badaezpada ordezko 3 izen aterako dira zozketan, irabazleetako batek baldintzak betetzen ez baditu ere. Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz saridunen batekin harremanetan jartzetik ez badago zozkatze-dataren ondorengo 10 egun baliodunetan, saria ordezkoentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

LABORAL Kutxak egoki deritzen moduan eta lekuan emango du saria.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Zerga-egozpen hori AURREZKLIK &... kontuaren titular guztien artean banatuko da.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Irabazleak bere izen-abizenak argitaratzeko baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.